



**LEITZAKO UDALERAKO "E" MAILAKO BI LANGILE ALDI
BATERAKO KONTRATATZEKO DEIALDIAREN BALDINTZAKA**

1.- Arau Orokorrak.

1.1.- Deialdi honen helburua oposizio-lehiaketa bidez Leitzako Udalereko aldi-baterako lan erregimenean "E" mailako bi langile kontratatzeko hautaprobak egitea da.

Bi pertsona kontratatuko dira, lan jardunaldi osoan eta 6 hilabeteko iraupenarekin. Kontratuaren hasiera uztailean zehar aurreikusten da.

1.2.- Bete beharreko funtzioak:

Egin beharreko lan nagusiak honakoak dira:

- Mugikortasuna eta irisgarritasuna:

Konponketak, mantentze-lanak eta obra txikiak egitea bide publikoan: galtzada-harriak moldatzea, espaloiak konpontzea, zintarren egokitzapena, oztopo arkitektonikoak ezabatzeko lanak, kutxatilak berrikusi eta emendatu, seinaleztapen horizontala eta bertikala.

- Lorezaintza:

Lorategi, berdegune, industrialde eta zuhaiztietako mantentze-lanak egin, belarra moztu, loreak landatu, kimatu, ongarria bota, jorratu, fumigatu etab.

Herri larreetako, bideetako, baso- eta turista-bideetako sastrakak garbitu eta mantentze lanak egin.

- Garbiketa:

Ekitaldiak edo ospakizunak egitekoak diren leku zehatzak garbitu eta egokitu. Erabilitako garbiketa makineriaren mantentze-lanak.

Kartelak eta pankartak kendu Alkatetzatik hala eskatzen denean.





- Mantentze-lanak:

Udaleko egoitzen zein azpiegituren mantentze- eta konponketa-lanak: iturgintza, elektrizitatea, pintura, igeltserotza.

Udalerrian igeltserotza lanak egitea, beharrezkoa denean.

Eraikin eta azpiegitura publikoen mantentze- eta apainketa lanak. Lanerako erabiltzen diren ibilgailuak zaintzea eta haien mantentze-lana. Kanpoko zerbitzuekin koordinazioa, langile espezializatuak behar direnean.

- Zeregin orokorrak:

Guztion interesekoak izan daitezkeen hainbat lan egitea, orokorrean.

Segurtasun eta higiene-arauak betetzea, egiten den lan bakoitzerako egokiak diren babeserako ekipoak erabiliz.

Bere lana burutzeko ezarrita dauden arauak, prozedurak eta zehaztapenak ezagutzea eta aplikatzea.

Ezarritako lanen eta zerbitzuaren beharren eskakizunetara egokitzea, betiere, noizbehinka eta ordutegi flexible batean izanik.

Udaleko hainbat zerbitzuei laguntza ematea eta mandatuak betetzea: iragarkiak, bandoak, udal publizitatea jartzea eta zabaltzea, eserlekuak prestatzea, dokumentuak ematea, lanabesak garraiatzea eta pertsonak eramatea.

Udal-instalazioen eta eraikinen, bideen eta Leitzako Udaleko gainerako ondasunen inguruko mantentze-lanak, kontuan izanik hainbat lan ezberdin egin beharko direla, espezializazio zehatz bat eskatu gabe ere, lanbidearen nolabaiteko ezagutza eskatuko dutenak.

Edozein eratako udal-zerbitzuak edo bestelako lanak egitea, Alkatetzak edo Batzarrak hala eskatzen badu.





1.3. Lanpostua eskuratu ez baina probak gainditu dituzten pertsonekin kontratazio zerrenda bat osatuko da, lortutako puntuazioaren arabera. Zerrenda hau Leitzako Udalak erabili ahalko du gerorako kontratazioetan, beti ere, hautagaiek eskatutako baldintzak betetzen badituzte, deialdia egiten denean. Kontratazio zerrenda honek 2020. urtean eginen diren kontratazioetarako balioko du.

1.4. Nafarroako Administrazio Publikoetako Zerbitzuko Langileen Estatutuko E mailari dagozkion ordainsariak izanen ditu lanpostuak.

1.5. Lanaldia lanaren beharretara egokituko da eta administrazio organo eskudunek noiznahi aldatzen ahalko dute.

2.- Hautagaiek bete beharreko baldintzak.

2.1. Hautagaiek ondorengo baldintzak bete beharko dituzte oposizio-lehiaketan onartuak izateko:

a) Espainiar herritartasuna edo Europar Batasuneko kide den Estaturen batekoa izatea. b) Gida baimena eskuratzeko gutxieneko adina izatea, baina ez gainditzea erretiroa hartzeko gehieneko adina.

c) Eskola-ziurtagiria edukitzea (LOGSE aurreko titulazioa), haren baliokidea edo eskaerak aurkezteko epea bukatzen denean eskuratzeko baldintzan egotea.

d) Gida baimena edukitzea.

e) Kargua egikaritzeko beharrezkoa den gaitasun fisikoa eta psikikoa edukitzea.

f) Funtzio publikoak egikaritzeko zigortuta edo gaitasungabetua ez egotea, eta Administrazio Publikoko zerbitzuren batetik bereizita ez egotea.

g) Hizkuntza Eskolak edo erakunde ofizial batek luzatutako euskara titulua izatea edo baliokidea, edo eskatutako euskara maila frogatzen duen



proba bat egitea oposizioaldia hasi aurretik (eskatuko den maila, ahozkoan B2).

h) Langabea izatea eta Nafarroako enplegu zerbitzuko bulegoetako batean enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta egotea eta (enplegua hobetzen ari direnak izan ezik), enplegu-eskatzailearen ziurtagiria eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren zitazioa giria aurkeztuz.

i) 2019an Leitzako Udalak kontratatu ez izana hiru hilabetez edo gehiagoz, martxoaren 7ko 251/2018 ebazpenaren antzeko deialdiaren babesean Nafarroako enplegu zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana, Nafarroako toki entitateendako diru-laguntzen kontzesioa arautzen duena langabeak kontrata ditzaten interes orokorreko edo sozialeko obra eta zerbitzuak egiteko.

2.2. Aurreko baldintza hauek eskaera aurkezten den momentuan egiaztatu beharko dituzte hautagaiek, hautaprobetan parte hartu ahal izateko.

3.- Prozedura.

3.1. Nafarroako Enplegu Zerbitzuari langabezi egoeran eta horrela izena eman duten pertsonen (enplegua hobetzen ari direnak izan ezik) eta deialdi honen 2. oinarrian jasotzen diren baldintzak betetzen dituztenen zerrenda bat eskatuko zaio. Hautaprobetan parte hartzeko aukera zerrenda horretan dauden pertsonak bakarrik izanen dute.

4.- Eskaeren aurkezpena.

Oposizio-lehiaketan parte hartzeko eskaerak Leitzako Udaleko alkateari zuzenduta joango dira eta Leitzako Udalean aurkeztu beharko dira. Baztertuak ez izateko ondorengo baldintzak bete beharko dituzte:

a) Hautagaiek eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute.

b) Lehiaketa fasean aintzat hartuko diren merituen aurkeztu beharko dituzte. Eskabidean jasorik ez daudenak eta modu egokian jasotzen ez





direnak ez dira kontuan izanen.

c) Eskabidearekin batera ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dira: NAN, AIZ (Atzerriko Identifikazio Zenbakia) edo pasaportearen fotokopia; gida baimenaren fotokopia; deialdian parte hartzeko eskatzen den titulazioaren fotokopia konpultsatua; eskatutako euskara mailaren egiaztagiriaren fotokopia konpultsatua; aurkeztutako merituen fotokopia konpultsatua, lan eskatzailearen egiaztageria eta NEZ-ren zitazio agiria.

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera, hautaketan parte hartzeko eskaeren bidez lortutako datu pertsonalak tratamendu automatizatuaren objektu izanen dira eta baimendutako eta segurtasun neurriak betetzen dituzten fitxategi ezberdinetan sartuko dira datu guztien segurtasuna bermatzeko.

Datu hauen erabilera udal kudeaketara murriztuko da, posible izango da beste Administrazio Publikoei hauek lagatzea edo komunikatzea.

Identifikazio datuak eta hizkuntza-profilei dagozkienak edo haien baliokideak NAPI-ri lagako zaizkio, aurkeztutako datuak hizkuntza-profilen erregistroan egiaztatze helburuarekin eta euskara maila egiaztatze proba prestatu eta zuzen egin ahal izateko.

Edozein kasutan, izen-ematearekin eskatzaileak honen berri baduela adierazten du eta bere datuen erabilerari baimena ematen dio.

Emandako datuak eskuratzeko aukera izanen du hautagaiak eta datuak eskuratu, aldatu, ezabatu eta aurkatzeko eskubidea du aipatutako Legeak ezarritakoaren arabera.

Eskaera eta agiriak aurkezteko epea ekainaren 24ko eguerdiko 13:00etan bukatuko da.

5.- Epaimahai kalifikatzailea.

5.1. Honako kide hauek osatuko dute epaimahaia:

Lehendakaria: Mikel Zabaleta Aramendia, Leitzako Udaleko alkatea





edo eskumen hori ematen dion pertsona.

Mahaikideak:

1. Mahaikidea: Joseba Azpirotz Elduaen, lan segurtasuneko informatzailea.

2. Mahaikidea: Lazaro Zabalea Cestau, Leitzako Udaleko zerbitzu anitzetako langilea.

3. Mahaikide-Idazkaria: Ane Zabaleta Baños , Leitzako Udaleko idazkaria.

Epaimahaiko kide bakoitza, berak aukeratutako pertsona batek ordezkatu dezake, deialdiak emandako eskumenari jarraikiz.

Epaimahaia hautaprobak hasi aurretik eratu beharko da.

5.2. Epaimahaia modu baliozkoan osatzeko eta hark behar bezala jarduteko, ezinbestezkoa izanen da kideen gehiengo absolutua bertan izatea.

Organo kolegiatua modu baliozkoan osatzeko ezinbestekoa izango da Lehendakariaren eta Idazkariaren presentzia, edo hauek ordezkatzeko dituzten pertsonena, eta gutxienez kideen erdiena.

5.3. Epaimahaiak gehiengo erabaki beharko ditu deialdiko oinarriak interpretatzean eta aplikatzean sor daitezkeen auzi guztiak.

5.4. Epaimahaiak aholkulari espezializatuekin bat egin dezake proba batzuetarako edo guztietarako. Aholkulari hauen jarduera beraien espezialitate teknikoetara mugatuko da eta epaimahaiarekin izango duen kolaborazioa hauetara bakarrik mugatuko da.

5.5. Euskara mailaren proba

Erakunde ofizialek luzatutako gaitasun agiririk ez duten hautagaiek euskara maila egiaztatze proba egin beharko dute. Proba hau Leitzako Udaletxean, eta Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko- NAPI- teknikariek egingen dute. Probaren data onartuen behin-behineko zerrendan zehaztuko da.





6.- Lehiaketaldia.

6.1. Lehiaketaren balorazioa. Hautagaiek eskaerarekin batera aipaturiko merituak egiaztatzen dituen dokumentazioa aurkeztu beharko dute. Jasotzen den baremoaren arabera kalifikatu eta puntuatuko dira. Epaimahaiak, edozein momentutan, aipatutako merituei buruzko azalpenak eta datu osagarriak eskatu ahalko ditu. Dokumentazioa aurkezten den epearen barnean dituzten merituak bakarrik izanen dira kontuan

Dokumentuak originalak edo Udal Administrazioak konpultsatutako kopiak izan beharko dira.

Lan esperientzia (gehienez ere 8 puntu). Ziurtagiri bidez egiaztatutako esperientzia baloratutako da. Ziurtagiri horretan honakoak zehaztu beharko dira: Lan egin den Administrazio Publikoa zein izan den, kontratuaren iraupena, betetako lanpostua zein izan den eta lanaldia osoa edo laburra izan den.

- Erakunde publiko batean antzeko lanpostuan aritu izana: hilabete bakoitzeko 0,20 (hilabete osoa behar du puntuatu ahal izateko, hilabete baino gutxiagoko kontratazioak ez dira kalifikatuko).

Prestakuntza osagarria (gehienez ere 2 puntu)

- Ikastaro, mintegi, talde-lan, lanpostuarekin zerikusi zuzena duten formakuntza proiektu bakoitzeko: 0,5 puntu 10 orduko ikastaro edo kreditu akademiko bakoitzeko. 10 ordu baino gutxiagoko ikastarorik ez da puntuatuko.

Titulazio akademikoa lortzeko izaten diren ikasketa plan bateko ikastaroak ez dira baloratuko. Ez dira aintzat hartuko iraupena zehazten ez duten formakuntza ikastaroetako agiriak.

Iraupen luzeko langabezia (gehienez ere 5 puntu)

- Iraupen luzeko langabezian daudenak, gutxienez urtebetez NEZ-an izena emanda dauden langabetuek 0,10 puntu hilabete oso bakoitzeko, eta egoera horretan urtebete egin dutenak behar dute (hilabete





baino gutxiagoko aldiak ez dira kontuan hartuko).

6.2. Oposizioko ariketak.

Probak ondorengoak izango dira:

a) Ariketa teorikoa: epaimahaiak erabakitako eta lanpostuarekin zerikusia duen eta izaera teoriko-praktikoa duten zenbait gai ebatzi beharko dira.

Ariketa honen puntuazioa gehienez ere 20 puntukoa izanen da eta 10 puntu baino gutxiago lortzen dituzten hautagaiak baztertuak izango dira.

Ariketa teorikoa maiatzaren Leitzako Udaletxean burutuko da. Azterketaren data onartuen behin-betiko zerrendan zehaztuko da.

b) Ariketa praktikoa: proba bat edo hainbat egin beharko dira, eta deialdian zehaztutako funtzioak betetzeko gaitasuna izatea frogatu beharko da.

Ariketa honen puntuazioa gehienez ere 65 puntukoa izanen da eta 32,5 puntu baino gutxiago lortzen duten hautagaiak baztertuak izanen dira.

Ariketa praktikoa Leitzako Udalaren nabean (Landa Industrialdean) burutuko da. Azterketaren data onartuen behin-betiko zerrendan zehaztuko da.

6.3. Epaimahaiko kideen artean ez badago aho batez hartutako akordiorik ariketen balorazioan, kide bakoitzaren kalifikazioak batuko dira eta kide kopuruagatik zatitu.

6.4. Ariketarako deialdi bakarra egingo da. Hautagaiak NAN, edo epaimahaiaren iritziz baliagarria izan daitekeen bestelako agiriren bat, aldean dutela agertu beharko dute. Agertzen ez diren hautagaiak baztertuta geldituko dira.

6.5.- Deialdi honetako hautagaiak eta kalifikazioak udaletxeko iragarki oholean eta www.leitza.eus Udalaren web atarian zintzilikatuko dira. Zerrenda hau ez da publikoki erabiltzeko, ez zatika ezta osorik ere, era





berean, ezin da inolako informazio sistema bidez erregistratu, kaltetuen baimenik gabe.

7.-Probak gainditzen dituztenen zerrenda eta agiriak aurkeztea.

7.1. Azken ariketaren kalifikazioa bukatu eta gero, epaimahaiak gainditutakoen zerrendaren berri emango dio organo deitzaileari.

7.2. Kontratazioaren jakinarazpenaren ondorengo 3 egun naturalen barruan, proposatutako hautagaiak deialdiaren 2. oinarrian jasotako baldintzak betetzen dituela frogatu beharko du, honako dokumentazioa aurkeztuz.

a) Nortasun Agiri Nazionalaren edo hautagaiaren nortasuna zehazten duen agiri baliokidearen fotokopia konpultsatua.

b) Eginkizun publikoak betetzeko ezgaitua edo gabetua ez egotea, eta edozein administrazio publikoren zerbitzutik baztertua ez izatea jasotzen duen zinpeko deklarazioa.

7.3. Aipatutako agiriak aurkezten dituen hautagaiak dagokion kontratua sinatu behar du, administrazioak zehaztutako epean.

8.- Baliabideak

Deialdi honen beronen oinarrien edo aplikazioen aurka, aukeran, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

a)-Berraztertze errekurtsioa, ekintza gauzatu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

b)-Administrazioarekiko Auzi Errekurtsioa, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazio Auzietarako Epaitegiaren aurrean, bi hilabeteko epean, errekurritutako ekintza edo hitzarmena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

c)-Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Auzitegi Administratiboaren





**Leitzako
Udala**

aurrean, hilabeteko epean, errekurritutako ekintza edo hitzarmena jakinarazten edo argitaratzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Epaimahairen aktoen aurka hilabeteko epean gora jotzeko errekurtsua jartzeko aukera egongo da Leitzako Udaleko Alkatearen aurrean.

Leitzan, 2020ko ekainaren 5ean.

Mikel Zabaleta Aramendia

Alkatea

